



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

Aralar BHI

---

**Ikastetxearen kodea:**

012951

**Data:**

2023/05/24

---





# 1. SARRERA

## **Ikastetxearen testuingurua**

Kokapena, mailak, ikasleria, klustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Aralar ikastetxea, eskualdeko herri eskola desberdinetako ikasleak jasotzen dituen DBHko ikastetxe publikoa da. Alegian dago, industria sare trinkoa duen landa eremu batean, Tolosatik bost kilometrotara, eta inguruko landa herri txikiagotako ikasleak biltzen ditu. Ikasle kopuru handi bat nekazal-girotik dator eta eskola txikietan ikasi du. Euskara dakitenean eta erabiltzen dutenen maila oso altua da. Azken urteetan inmigrazioa asko hazi da eskualdean.

206 ikasle daude DBHko etapan, D ereduan.

Ikastetxeko plantilan 37 irakasle daude 2022-23 ikasturtean (13 funtzionario eta 24 interino).

Irakasle hauek profesional egokiak dira, formatuak eta konpetenteak. Administrazio laguntzailea eta atezaina dago eta biek oso ondo betetzen dute bere lana.

Familien gehiengo handi batek ogibidea inguruko lantegietan badu ere, nekazal giroa oso presente dago gehienontzat.

Ikastetxearen nortasuna definitzen duten hitzak hauek dira: euskalduna, eleanitza, gure gizartean errotua eta besteei irekia, guztien ideiak errespetatzen dituena, berdintasunezko harremanak sustatzen dituena, bizikidetzaz hobetzeko bideak jorratzen dituena, ikasleengan izpiritu kritikoa eta ardura bultzatzen dituena, ongi hornitua, gaurkotua, ingurumena ezagutu eta babesteko jokabideak bultzatzen dituena eta irakasleen etengabeko hobekuntzaren alde egiten duena. Helburua heziketa osoa eskaintzea da, hemendik irteetan, ikasle autonomo, kritikoa eta konprometituak sustatuz, bertako gizartean nahiz mundu zabalean parte

## **Azpiegiturak**

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Barne kudeaketa eta irakasle, langile eta familiekin komunikazioa bideratzeko Inika plataforma erabiltzen da.

Google Suite plataformak eskaintzen dituen aplikazioak eskuragarri daude ikasle eta irakasleentzat. Google Drive erabiltzen dugu eskolako dokumentuak langileen artean partekatzeko.

Microsoft 365 aplikazio sorta irakasle.eus kontuarekin, kanpoko erakundeekin bideodeiak egin eta bestelako lanak kudeatzeko (dokumentuak partekatu e.a.)

Interneta dago, kable bidez gela guztietan eta 3 Wifi azpisare eskola guztian.

Botikineko sei ordenagailu dauzkagu ikasleentzat, etxean ahaztu edo esleitutakoak ordezkatu behar direnerako (matxuraren baten aurrean adibidez).

Chromebook eramangarriak dauzkagu elektrifikatutako armairu batean, eskolan erabiltzeko (irakasle eta ikasleentzat).

Ikasle bakoitzak ultraeramangarri bat dauka (Hezkuntzak eskaintako Chromebook bat) ikasle.eus kontuarekin.

Segurtasunari dagokionez, antibirusa (Kasperski) dago irakasleen ordenagailu eramangarrietan eta finkoetan. Zerbitzari gelan Firewall (Fortinet) sistema dago.

Irakasle bakoitzak portatila dauka Windows sistema eragilearekin.

Ordenagailu finko bat dago mintegi bakoitzean eta irakasle gelan 3 ordenagailu finko daude.

Gela arruntetan, ordenagailua eta proiektorea dago, VGA nahiz HDMI bidezko konexioarekin eta bi bozgorailurekin konektatuta.

Sarean hiru inprimagailu dauzkagu (Gizarte mintegian, irakasle gelan eta atezaintzan). Irakasle gelako inprimagailuak fotokopiak eta dokumentuak eskaneatzen ditu.

Teknologia tailerrean 3 dimentsiotan inprimatzen duten 3 makina daude.

Informatika gela bat dago 13 ordenagailu finkorekin.

Mantenuari dagokionez, Hezkuntzako mantenu zerbitzuarekin harremanetan dago IKT arduraduna, gertatzen diren matxurak lehenbailehen kudeatzeko.

Ikastetxeko matxuren kudeaketarako Inika plataforma erabiltzen hasi gara.

Klaustrokide guztiek irakasle.eus eta aralar-bhi.com kontuak dauzkate.

Eskolako webgunea <https://www.aralar-bhi.net/> da, eta bertan jasotzen dira eskolak eskaintzen dituen jakintzagaien inguruko datuak, egutegia, kokapena, proiektuen inguruko bideoak e.a. Ikasturte honetan webgunea berritzeko prozesuari hasiera eman diogu, eta datozen astetan webgune berria argitaratzeko asmoa dago.

### Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikasturte hasierako Hezkuntza Sailaren ebazpenean ikastetxe guztiek Proiektu Digitala egiteko beharra ezartzen da. Horren arabera, Proiektu Digitalak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuarekin lerrokatuta joan behar du.

Gizartean jasaten ari garen eraldaketa digitalak lehentasunezko tokia dauka eta gure ikastetxea errealitate horren parte izanik, irakasleen beharrei erantzun behar die, digitalki kompetenteak izan daitezzen. Ildo horri jarraituz, hezkuntza erakundeentzat Europak DigCompOrg erreferentzia markoa ezarri du esparru horretara gure jardunbidea egokitzeko.

Ikastetxeak urteak daramatza eraldaketa digitalean aurrerapausoak ematen, teknologia berrien erabilera bultzatzen ikas- eta irakas- prozesuetan, antolamenduan eta administrazioan, eta honi jarraipena ematea garrantzitsua da guretzat. Hori horrela izanik, diagnostikoko batetik abiatuta, plangintza bat diseinatzea ezinbestekoa da, eta horretarako idatzi dugu Ikastetxeko Proiektu Digitala.

### Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasanak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Aurten Digitalizazio Batzordea eratu da, eta horrek hartu du IPDa egiteko ardura nagusia, Zuzendaritza taldearekin elkarlanean. 2022-2023ko ikasturtean zehar, aurretik egindako lanetik abiatuta, IPDaren lehen urratsak emateari ekin dio, ikasturte honen bukaerarako IPDa prest edukitzeko kronograma bat ezarri.

IPDaren esparrua mugatzeko orduan, DigCompOrg marko europarrean zehazturiko zazpi aztergaiak kontuan hartu dira. Horrek lagundu digu ikuspegi global batetik: gure ikastetxearen errealitatea aztertzeko; eta etorkizuneko ekintza planak diseinatzeko.

IPDa egiteko jarraitutako prozedura: IPDaren sarrera idatzi, ikastetxearen analisia egin (SELFIE autoebaluazio tresna erabiliz), 2022ko apirilean gure ikastetxean egindako SELFIEaren emaitzen azterketa, AMIA matriza bete, horren ondorioak atera (ondorioen taula), helburuak definitu (bakoitza bere deskriptore eta adierazleekin), horien lehentasanak finkatu, helburu bakoitzari lotutako ekintzak definitu (epe mugak zehaztuz) eta ebaluazio markoa ezarri (helburuak ebaluatzeko nork (arduradunak), noiz eta nola (ebaluazio moduak eta tresnak).

Digitalizazio Batzordetik atalez atal egindako lana hezkuntza komunitateak balioetsi behar izan du. Horretan, zirriborroak eta azken testua hainbat iragazkitatik pasatu dira: Digitalizazio Batzordea > Zuzendaritza Taldea > Batzorde Pedagogikoa > Klaustroa > Organo Gorena.

Datozen urteei begira, Digitalizazio Batzordeak Proiektua gauzatzeko nahiz betetze maila kontrolatzeko eta ebaluatzeko ardura nagusia hartuko du, zuzendaritza taldearekin elkarlanean eta behar diren kasuetan gainontzeko hezkuntza komunitateko alderdiak

### Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

IHP, 2022-2023ko UP bat datozte IPDrekin. Izan ere, Digitalizazioaren inguruan hiru dokumentuetan agertzen diren Helburu Orokorrak berdina dira; IPDan bateratu, garatu eta sakontzen direlarik.

IHPko 3. Helburua hau da: "Teknologia berrien ezarpenarekin jarraitzea eta geletako jardueretan erabilera sustatzea, langileen formazioa eta konpromisoa ziurtatuz". Beraz, helburu honekin metodologia berriak inplementatu nahi dira irakasleen gaitasun profesionala sakonduz. Helburu hau UPeko 4. lerro nagusiaren berdina da: Ikastetxearen digitalizaioa bultzatu. Hau da, UPnean IHPan bezala, metodologia desberdinak gauzatzeko beharra ikusten da. IPDak bere Garapen profesional atalean Helburu hauek jaso eta zehazten ditu, ekintza, baliabide eta epeak txertatuz.

Honez gain, UPean agertzen den lehendabiziko erronka Curriculum berria eta haren garapena eta digitalizazioa da. Erronka hau erabat lotuta dago IPD agertzen den ikaskuntza eta ikaskuntza helburuarekin, zehazki "Curriculum berria kontuan hartuz, programazioetan /ikas egoeratan irakasleek inklusioaren aldeko baliabide digitalak txertatzea" rekin. Beraz, IPDn zein ekintzak egingo diren zehazten da Urteko planean dagoen erronka aurrera eraman ahal izateko.

Beraz, IPD, UP eta IHPeko irizpideak osagarriak dira eta beraien artean bat datozte.



## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**  
SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Selfiea 2022ko Apirilean egin zen ikastetxeko Zuzendaritzaren %92, irakasleen %65a eta ikasleen %91ak erantzun zutelarik. Emaitzen arabera, hau da egiten dugun irakurketa.

Ikastetxean lidergoak duen rolari dagokionez, orokorrean balorazioa positiboa izan da, estrategia digitala eraikitzen hasiak izanik, irakasle taldeak zuzendaritzaren babesa dauka irakaskuntza modalitate berriak garatu eta integrazeari denbora tarte egokia eskaintzen zaiola ondorioztatzen da.

Kolaborazioari dagokionez, teknologia berriak erabili eta egindako aurrerapausoak neurri ertainean ebaluatzen ditugula ondorioztatzen da. Beste ikastetxe eta erakundeekin digitalizazioa bultzatzeko kolaborazio lana ez da handia kontsideratzen. Azpiegitura egoki, fidagarri eta seguruei dagokionez, sentsazioa ona da zuzendaritza, irakasle eta ikasleen erantzunak ikusita. Baloraziorik baxuena erronkei aurre egiteko hartzen diren neurrien inguruan jaso da, ikasleen ikaskuntza-premiak identifikatzeko garaian.

Etengabeko Prestakuntza Profesionalari dagokionez, zuzendaritza langileen prestakuntza laguntzen du, dauden beharrak entzun eta hauei aurre egiteko beharrezko formakuntzak bilatuz eta posible denean eskainiz (barne formakuntzak eta mintegika egin ohi dira), ondoren gela barruan integratuz.

Arlo pedagogikoari dagokionez, ikastetxeko irakasleek ikaskuntza errazteko baliabide digitalak sortu eta erabiltzeko ohitura dute, bai klasean, bai birtualki. Ahal den neurrian baliabide irekiak erabiltzen saiatzen gara. Irakasleekin, ikasteko eta irakasteko prozesuak eguneratzeko teknologia inplementatzen dira, ikasleen premietara egokitzen saiatuz. Teknologia berriak sormena sustatzeko gehiagotan erabili beharko genituzke. Disziplinarteko proiektuetan teknologia berri hauek gutxi aplikatzen ditugu. Ebaluazio-jarduketek dagokionez, hemen atera dugu puntuaziorik baxuena. Atzeraelkadura prozesutan tresna digitalak erabiltzeko ahalegin handiagoa egin beharko genuke, bai nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketan bai ikaskideen arteko balorazioak egiterako garaian.

## AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

### Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Ikastetxe txikia izatean, zaila da jendeak ulertzea pozedurak ere beharrezko direla
Estrategia digital argirik ez dago
EBALUAZIOOrako tresna digitalen erabilera txikia: atzeraelikaduran eta ikaskuntzari buruzko hausnarketan. Gaitasunen ebaluazioan ere eskas.
Ikasleen gaitasun digitala orokorrean ertaina da
Ikastetxeko webgunea eguneratze/mantentzea
Koordinazio tresna digital berriak erabiltzeko ohitura falta
Klaustrokide gutxi batzuen gaitasun digital eskasa
Klaustrokide batzuen interes falta edo erresistentzia

+ Lerro bat gehitu

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Irakaslegoaren egonkortasun falta
Komunitatearen konpetentzia digital nahikoaren eza (familia, irakasle, ikasle)
Klaustroaren lan karga handia
Egunerokotasunean sortzen diren arazoak eta lan berriak
Hezkuntza Sailarekiko menpekotasuna eta autonomia falta baliabide digitalak aukeratu eta antolatzeko garaian
Baliabide digitalen erabilera ohitura desegokiak
Baliabide digitalak ez eguneratzea
Baliabide digital fisiko gehiago sartzeko beharra
Curridigik sortutako lankarga eta giro petrala

+ Lerro bat gehitu

### Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Orain arte egindako lana (ikastetxearen ibilbide digitala)
Ikasleen digitalki lan egiteko gogoa
Google Workspace tresnaren erabilpen gero eta handiagoa
Zuzendaritzaren jarrera irekia proposamen digitalen aurrean
Klaustrokidearen zati handi baten interesa eta prestakuntza digitalizazioan
Koordinazio tresna berriak abian jarri ditugu
Digitalizazio batzordearen laguntza

Inika plataforma daukagu

+ Lerro bat gehitu

<b>Aukerak (kanpo-faktoreak)</b>
Irakaslearen jarrera
Formazio egokiak aukeratzea
Elkarlana sustatzea
Gizartearen digitalizazio orokorra
Hezkuntza sailak eskaintzen dituen plataformak (GWorkspace, Microsoft)
Beatarrak eskolan izatea
Hezkuntza lege berriak digitalizazioari ematen dion garrantzia
Sarean dauden baliabide didaktiko anitzak
Curridigik emandako baliabideak eta ezagutzak, adibidez ebaluaziorako tresna digitalak sortzeko aukera.

+ Lerro bat gehitu

#### Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

#### Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Ikastetxearen ibibide digitalari eta ikasleen digitalki lan egiteko gogoari etekina aterako diogu, Hezkuntza lege berriak digitalizazioari ematen dion garrantziarekin bat egin eta Curridigi ikastaroan eskaintzen dituen tresna digitalak kudeatzeko.

Proposamen digital berrien aurrean Zuzendaritzak duen jarrera irekia aprobetxatuko dugu, martxan dauden koordinazio tresnak erabiliz irakasle goaren digitalizazioa eta hauen arteko elkarlana sustatzeko.

#### Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Digitalizazio Batzordearen (DB) laguntza aprobetxatu beharko dugu gure ikastetxeko estrategia digitala definitzeko.

Koordinazio tresna berriak abian jarrita dauzkagu eta bai Inika, bai Google Workspace for Education tresna multzoaren erabilpena gero eta handiagoa denez, tresna hauekin zegoen ohitura faltari aurre egin ahalko diogula pentsatzen dugu, eta horrela, dauzkagun baliabideak (ikastetxeko webgunea, kasu) eguneratuta mantentzea errazagoa izango da.

Atzeraelikaduraren hausnarketa gutxi egiten dugunez, "Curriculum Berria eta Digitalizazioa" ikastaroan proposatzen diren tresna digitalen artean atzeraelikadura eta ikaskuntzari buruzko hausnarketan laguntzen dutenak identifikatzea komeni zaigu.

#### Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Klaustroak lan karga handia daukanez, orain arte egindako ibilbide digitalari etekina atera beharko diogu, dauzkagun eta ezagunak diren tresnak erabiliz denbora hobeto aprobetxatzeko.

#### Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Tresna digitalen erabilera bultzatu beharko dugu, Curriculum eta Konpetentzia Digitala ikastaroak eskaintzen dituen baliabideak, Digitalizazio Batzordea nahiz irakasleen proposamenak jarraituz.

Ikasleen gaitasun digital maila indartzen jarraitu beharko dugu, irakasleen konpetentzia digitalean egin diren aurrerapenak praktikan jarritz.

Jakintzagai desberdinetan eta bereziki Teknologia eta IKT ikasgaietan, baliabide digitalen erabilera ohitura egokiak lantzen jarraitu beharko dugu ikasleekin.

Webgunea eguneratuta mantentzeko planifikazio bat egin beharko dugu.



### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Estrategia digitalaren hezurdura definitzea, planifikatzea eta inplementatzea		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	2024-10-30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai

#### + Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Proiektu Digitala (IPD) idatzi	Digitalizazio Batzordea (DB) Mentoretza sarea	DB Zuzendaritza	2023-06-15	Prozesuan (%80-99)
Hezkuntza komunitateak (klastroak eta Organo Gorenak) IPDa onartzea	Klaustroa Organo Gorena	DB Zuzendaritza	15/06/2023	Detektatua
IPD inplementatu eta hau ebaluatzeko prozedura bat abian jartzea	IPD DB Batzorde Pedagogikoa	DB Zuzendaritza	2023/11/01	Hasita (%1-19)
Hezkuntza Proiektuan IPDaren ildo nagusiak txertatzea	IPD Ikastetxeko hezkuntza Proiektua	Zuzendaritza	2024/10/30	Detektatua
Urteko Planean IPDaren ildo nagusiak txertatzea	IPD Ikastetxeko Urteko Plana	Zuzendaritza	2023/10/30	Detektatua

#### + Ekintza gehitu

#### + Helburu gehitu



## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

<b>Helburua</b>		
Curriculum berria kontuan hartuz, programazioetan/ikas egoeretan ikasleen inklusioaren aldeko baliabide digitalak txertatzea		
Deskriptorea	Epea	
II 2.5 Ikaskuntza pertsonalizatua sustatzen da	30/11/2024	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Etapako maila bakoitzean dauden behar bereziak detektatzeko irizpideak adostu eta txantiloia sortu	Digitalizazio Batzordea Klaustroa	DB Zuzendaritza	2024-10-01	Detektatua
Ikasleen behar bereziak detektatu eta txantiloian gehitu	Behar berezien txantiloia	Mintegi Burua Klaustroa	2024-11-01	Detektatua
Ikas-egoeratan inklusioa bermatzen laguntzen duten baliabide digitalak bilatu	Digitalizazio Batzordea Berritzegunea	DB	30/11/2024	Hasita (%1-19)

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

**GP Garapen profesionala**

<b>Helburua</b>		
Irakasleen gaitasun digitalaren garapena bultzatzeko, irakasleen ordutegi barruan formakuntza plan bat egitea		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerrokatu dago banakako eta antolaketako premiekin	16/12/2024	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Galdetegi bat diseinatu eta zabaldu klustroan dauden beharrak analizatzeko, baliabide digitalak sortzearen inguruan	Digitalizazio Batzordea Klustroa	DB	2023-11-20	Detektatua
Galdetegiaren emaitzak analizatu eta formakuntza plan bat diseinatu epe ertainerako	Aurreko puntuan jasotako galdetegiaren emaitzak	Zuzendaritza taldea DB	2024/12/16	Detektatua
Selfie for Teachers (S4T) galdetegi zabaldu klustroan, gonbidapen gisa	S4T galdetegi	DB	2024-12-16	Detektatua
Epe laburrerako formakuntza plana diseinatu irakasleen kompetentzia digitala eta EHzkuntza Sailak eskaintako formakuntza kontuan hartuta	Irakasleen kompetentzia digitalaren profila	DB Zuzendaritza	2023-10-01	Detektatua

+ Ekintza gehitu



## EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Ebaluazio prozesua egonkortzea tresna digitalak erabiliz		
Deskriptorea		Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da		17/06/2024
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Ehunekotan	%60

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikas-egoeratan ebaluazio prozesua bermatzeko tresna digitalak txertatu	Digitalak nahiz paperean	Klaustroa	2024-06-17	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EC Edukiak eta curriculuma

<b>Helburua</b>		
Irakaskuntza alorrean sortu, egokitu eta erabiltzeko baliabide digital irekiak antolatze eta sailkatze biltegia sortzea, irakasleen eskura jarriz, zentroan berrikuntza pedagogikoa bultzatze aldera		
Deskriptorea	Epea	
EC 1.5 Hezkuntza baliabide irekiak sustatzen eta erabiltzen dira		
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxean baliabide didaktiko digital irekiak ekoizteko eta erabiltzeko mekanismoak artikulatzea, errekurtsio horiek antolatze eta sailkatze espazioak sortuz eta erabiltzeko prozedurak zehaztuz, zentroan berrikuntza pedagogikoa bultzatze aldera.	Batzorde Pedagogikoa DB Klaustroa	Zuzendaritza taldea DB	01/10/2024	Detektatua
Ikastetxean ekoiztutako eduki digitalak gordetzeko biltegi bat sortzea eta hau elikatze protokoloa idaztea	DB Klaustroa	DB	15/10/2024	Detektatua
Gordailua baliabide digitalez elikatzea	Batzorde Pedagogikoa DB Klaustroa Sortutako biltegia	Batzorde Pedagogikoa Mintegi burua BeA	25/06/2024	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Ikastetxeko webgunea eguneratuta mantentzeko planifikazioa egitea		
Deskriptorea	Epea	
EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa	2023/10/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Webgunearen administraria izendatu	Zuzendaritza DB Klaustroa	Zuzendaritza taldea	2023-10-16	Egina
Webgunean eduki desberdinak aldatu behar direnean jarraitu beharreko pausoak jasotzen dituen gida egin	Webgunea	DB	2023-11-27	Hasita (%1-19)
Edukiak (bloga/aukerazkoak, sarrerako orria, irudiak) eguneratzerako maiztasun bat definitu	Ikastetxeko egutegia Irteerak Klaustroa (aurreikusi diren ikas-egoera eta proiektuak)	DB Zuzendaritza taldea	2023-10-02	Detektatua
Ikastetxearen pribatutasun neurriak errespetatzen dituen Youtube edo lainoan dagoen bideo edukiontzi batean ikastetxeko kanala sortu	Bideo plataforma irekiak	IKT arduraduna	2023-10-02	Detektatua
Webgunearen administrariaren zereginak jasotzen dituen dokumentua egin	Webgunea	IKT arduraduna	2023-09-30	Hasita (%1-19)

+ Ekintza gehitu



## AZ Azpiegiturak

Helburua		
Eskola komunitatearen pribatutasuna eta datuen babesa bermatzea		
Deskriptorea		Epea
AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita		31/01/2025
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Datuen babesa eta pribatutasuna bermatzeko hartu beharreko neurrien protokoloa idatzi: ikasleen izen abizenak eta irudiak partekatuzera goazenean	"Datuen Babesa Hezkuntza eremuan" liburuxka Orientazio Mintegia	DB Zuzendaritza	2025-01-31	Hasita (%1-19)

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



## IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Deskriptorea	Epea

Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Estrategia digitalaren hezurdura definitzea, planifikatzea eta implementatzea	1. ebaluazioa: 2024-10-24	Adierazleen betetze-mailaren neurketa: 1, 2, 3, 4	Zuzendaritza Digitalizazio Batzordea (DB)	Detektatua	
LG	Batzorde digitala ikastetxean izendatua izango dela bermatzea	2023-10-15	Adierazleen betetze-mailaren neurketa: 1	Zuzendaritza DB	Detektatua	
II	Curriculum berria kontuan hartuz, programazioetan/ikas egoeretan ikasleen inklusioaren aldeko baliabide digitalak txertatzea	1. ebaluazioa: 2024/05/05 2. ebaluazioa: 2024/12/01	Adierazleen betetze-mailaren neurketa: 1. eb: 1 2.eb: 2,3	Zuzendaritza DB	Detektatua	

II	Online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsuak, trebetasun sozialak eta emozionalak kontuan hartuz eredu pedagogikoak lantzea Teknologia eta Digitalizazio arloan	2024/10/20	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1, 2	Teknologia mintegi burua DB	Detektatua	
II	Curriculum berriari egokituta, baliabide digitalak barne hartzen dituzten ikas-egoerak sortzea, disziplinarrekotasuna sustatuz	1. ebaluazioa: 2024/01/31 2. ebaluazioa: 2024/06/20	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1	Beatarra (BeA) DB Zuzendaritza	Detektatua	
GP	Irakasleen gaitasun digitalaren garapena bultzatzeko, irakasleen ordu-tegi barruan formakuntza plan bat egitea	1. ebaluazioa: 2024/06/15 2. ebaluazioa: 2024/12/16	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1. ebaluazioa: 1, 2,3 2. ebaluazioa: 4	Zuzendaritza DB	Detektatua	

GP	Garapen profesional digitala bultzatzea, ikastetxeko teknologia digitalen erabilerarako informazioa irakasleentzako harrera plan batean txertatuz	2024/01/23	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1, 2	DB Teknologia Mintegia	Detektatua	
EJ	Ebaluazio prozesua egonkortzea tresna digitalak erabiliz	1. ebal: 2024/01/30 2. ebal: 2024/06/17	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1	Zuzendaritza BeA	Detektatua	
EJ	Ebaluazio prozesuan lagungarriak diren tresna digitalak identifikatzea	1. ebal: 2024/01/31 2. ebal: 2024/02/28	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1. ebal: 1 Adierazleen betetze mailaren neurketa: 2	DB Zuzendaritza	Detektatua	
EC	Irakaskuntza alorrean sortu, egokitu eta erabiltzeko baliabide digital irekiak antolatze eta sailkatze biltegia sortzea, irakasleen eskura jarri, zentroan berrikuntza pedagogikoa bultzatze aldera	1. ebaluazioa: 2024/10/01 2. ebaluazioa: 2024/06/25	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1	DB Zuzendaritza	Detektatua	

EN	Ikastetxeko webgunea eguneratuta mantentzeko planifikazioa egitea	2023/11/23	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1, 2, 3	Zuzendaritza DB	Detektatua	
AZ	Escola komunitatearen pribatutasuna eta datuen babesa bermatzea	2025/01/31	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1	Zuzendaritza	Detektatua	
AZ	Teknologiaren erabilera ohitura onak bultzatzea irakasleen artean	2025/02/08	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1, 2	Zuzendaritza	Detektatua	
AZ	Ikastetxeko hornidura teknologikoa definitzea	2024/06/20	Adierazleen betetze mailaren neurketa: 1	Zuzendaritza DB	Detektatua	
AZ						
IB						